

<b>Berdintasun Zerbitzua</b>		<b>Getxoko Udala</b>
<b>Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Data: 2013-09-12    Tokia: Santa Clara Jauregia    Ordua: 17,00 – 19,00 h

**Bertaratutakoak:**

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo

Enclave de ciudadanas por Getxo: Charo De la Peña

Eskuz-Esku: Isabel Pérez

Gizatiar: Maite Egia, Carmen Peña

Mujeres con Voz: Luciana Gómez Davies

Roda: Clara Lorenzo

Udal talde sozialista: Teresa García Oviedo, Inés Becares

Talde Popularra: Ana Basilio

Bildu: Arantza Gutiérrez

EAJ-PNV: Elena Coria

Lehendakaria: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

**Bertaratu ez direnak:**

Getxo Enpresa

ELA

**Gai-zerrenda**

- Aurreko akta onartzea
- Kontseiluko kide berriak aurkeztea
- Jai-kanpainaren balorazioa

- Ikastaro eta lantegiei buruzko informazioa
- Azaroaren 25erako proposamenak (Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna)
- Galde-eskeak

### **Aurreko akta onartzea**

Aurreko bileraren akta onartu genuen.

### **Kontseiluko kide berriak aurkeztea**

Emakumeen beste bi elkarte sartu direnez (Bilgune Feminista eta Mujeres con voz), aurkezpenen txanda egin genuen.

### **Jai-kanpainaren balorazioa**

Berdintasuneko teknikariak kanpainaren jardueri buruzko informazioa eman zuen. Azken bileran jakinarazi genuen bezala, iazko irudiarekin jarraitzen duten kartelak eta pegatinak ditu kanpainak. Jai nagusietan – Paellak, Algorta, Areeta, Romo eta Portu Zaharreko jaiak- karpa bat jartzen dugu normalean, hiru orduz, pegatinak eta neska gazteen indarkeria sexista prebenitzeko *“Dibertitzeko eta zeure burua babesteko errezetak, ideiak eta aholkuak”* triptikoak banatzeko.

Orain arteko balorazioa ona izaten ari da, hala ere, zenbait kasutan, karpa arrakasta handiagoa izaten ari da nesken artean mutilen artean baino. Oraindik Mesedeetako jaiak falta dira kanpaina amaitzeko.

Bestalde, Berdintasuneko zinegotziak jakinarazi du, iaz bezala, ez dela sexu-erasoengatiko salaketarik egin.

### **Ikastaro eta lantegiei buruzko informazioa**

Berdintasuneko teknikariak Berdintasun Zerbitzua antolatzen ari den jardueri buruzko informazioa eman du:

- Transexualitatearen despatologizazioaren eguna dela eta antolatutako hitzaldia: urriaren 21ean, 19:00etan, Villamonten, “Errespetuz” transexualak txertatzeko euskal elkartearen eskutik.
- Maskulinitatea birpentsatzeko tailerrak: izena emateko epea hasi eta hurrengo egunean dagoeneko 4 pertsonak eman dute izena.
- Jabekuntza eskola: ikasturte honetarako, iaz bezala, 7 prestakuntza-lerro berak daudela azaldu du, eta 14 ikastaro antolatu dituela; horietatik, 6, berriak dira. Jadanik dauden jardueri buruzko zenbait aldaketa ere azaldu dira. Batetik, amama zaintzaileentzako tailerrak (*Cuidar de mi, cuidar de ti*)

zenbait eduki aldatuko ditu, eta zaintzaile guztientzat izango da (*Cuidar cuidándonos*). Bestetik, kultura arteko elkarrizketei dagokienez, *Espacio de empoderamiento intercultural* deituko zaie, eta aldaketa handiak izango dituzte: aldez aurretik izena ematea eskatzen du, larunbat arratsaldeetara pasa dute, migratutako emakumeek ere parte har dezaten, eta gaiak dagoeneko finkatuta daude (emakumeen arteko harremanen tentsioak, gorputzen sortze generikoa eta sexualitateak eta erlijioen eragina balioetan, eta emakumeen posizio soziala).

Eskolari dagokionez, 2012-2013 ikasturtearen zenbait adierazle ere eskaintzen dira: Batez besteko adina 3 puntu murriztu da, eta 46,5 urtera pasa da, eta izena emateko 266 fitxetatik, 131 emakume berriak dira Eskolan. Okupazioari dagokionez, erretiratutako emakume kopurua % 3tik % 13 handitu zen, eta nabarmen jaitsi da etxeko lanetan bakarrik aritzen diren emakumeena: % 23,2tik % 11,1 arte. Langabezia-egoeran dauden emakumeen ehunekoak % 38,3an jarraitzen du, eta azken 6 hiletan enplegua izan duten edo oraindik duten emakumeena % 52,2an kokatu da, iaz baino 5,2 puntu gehiago. Azkenik, elkarteren batean parte hartzen duen emakume kopurua % 41etik % 22 arte pasa da.

### **Azaroaren 25erako proposamenak (Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna)**

Berdintasuneko zinegotziak azaldu du Berdintasun Zerbitzuak, batetik, gazteentzako Beldur Barik kanpaina bultzatuko duela, eta, bestetik, urte guztietan bezala, beste jarduera batzuk egingo direla. Gai-zerrendaren puntu horretan, jarduera horietarako proposamenak jasotzea da asmoa, hain zuzen ere.

Berdintasuneko teknikariak jakinarazi du irailaren 20an, Gaztelekun, Beldur Barik bideo-sorkuntzako tailerrean parte hartu zuten Getxoko neska-mutilek egindako bideoa aurkeztuko dutela, eta bideoa emateaz gain, Getxon, lehiaketara, bideo gehiago aurkeztea dela helburua.

PSEren ustez, beste urte batzuetan egin diren hitzaldiak eta beste jarduera batzuk oso interesgarriak dira, baina horizontalagoa den eta jende gehiagok parte hartzen duen zerbait antolatu beharko litzateke. Horretarako, bi puntu lilen arten ibilaldia proposatzen dute, herritarrek parte har dezaten, esaterako, AMPAS elkarten bidez, elkarteetara baino jende gehiagorengana heltzea saiatzeko.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun du jarduera hori bera martxoaren 8an egin zutela, hala ere, kirol kutsua izan zuela. Bere ustez ez du zentzurik ekintza bera errepikatzea.

Berdintasuneko teknikariak ez dio zentzurik ikusten Gizatiar elkarteak antolatutako deialdiarekin batera beste bat egitea. Bere ustez, interesgarriagoa izango litzateke, beste urte batzuetan egin zuten moduan, elkarte guztiek, edo egitea dagokion elkarteak, deialdi bat bakarrik egitea.

Eskuz esku elkarteak adierazi du aire zabalean egiteko proposatzen den edozein ekintza eguraldiaren mende dagoela, eta ia urte guztietan euria egiten duela, beraz, ez du uste ongi aterako denik.

Gizatiar elkarteak ez du inplikaziorik ikusten, antolatzeko esfortzu handia eskatzen du eta jende gutxi parte hartzen du, eta beti pertsona berak. Beren ustez ez da egokia herritarrei bi deialdi egitea.

Berdintasuneko zinegotziarentzat, elkarteek berek zailtasun handiak dituzte beren oinarri sozialera jendea erakartzeko, hala ere, hedatzeko esfortzu handiagoa egin liteke.

Eskuz esku elkarteak berretsi du deialdia gelaz gela egin arren, ordezkarien bidez, elkarteetako emakumeek, egia esan, ez dutela parte hartzen mota horretako ekitaldietan.

Enclave elkarteak bizikletaz ibilaldi bat egitea proposatu du, bi puntu lilaren artean, baina hondartzatik joan beharrean Faduratik egitea, bidegorritik. Proposamena izan daiteke bizikletaz egindako ibilaldia lehenago antolatzea, Areetako agerraldira heltzeko.

Bildu-rako jende asko joaten da Bilbora, eta lehia handia ekartzen du horrek Getxon egiten den edozein deialdirako.

Berdintasuneko zinegotziak adierazi du Berdintasun Zerbitzuak ez duela jarduerarik egiten azaroaren 25ean edo martxoaren 8an, Bilbon egiten direnekin batera ez gertatzeko, eta Gizatiar elkartearen jarduera bera, asteko beste egun batean antolatu dutela beste batzuetan.

PSErako elkarteek ahalik eta pertsona gehien erakarri behar dituzte, nahiz eta gero batzuk Bilbora joan. Areetako kontzentrazioa Gizatiar elkarteak eta Kontseiluak antola dezaketen galdetu du.

Berdintasuneko zinegotziak erantzun du Kontseiluak ez duela gaitasunik ekitaldirik antolatzeko, organo aholku-emailea delako. Martxoaren 8ko ibilaldia Udalak antolatu zuela, Kontseiluak proposatuta.

Mujeres con voz elkarteak hitzaldi interesgarri bat antolatzea proposatu du, mokaduak eta guzti, Gobelaurren, eta gero kontzentrazioa joatea. Zentzu berean, Bilduk proposatu Beldur Barik bideoa aurkeztea Andrés Isasi zentroan, jendea gero kontzentrazioa hurbiltzeko.

EAJko ordezkariak uste du ez dagoela denbora errealik kontzentrazioaren aurretik ekintzat bat egiteko, eta PSEren ustez, proba liteke, ea zer gertatzen den ikusteko.

Bilduk, goizetik, jarduerak egitea proposatu du, eta ikastetxeek ere parte hartzea, Euskararen egunean egiten denaren antzekoa, hala ere, ulertzen dute agian beranduegi dela hori guztia antolatzeko. Proposamen hori egin daitekeen eztabaidatu dute.

EAJk beste urteetako kontzentrazioarekin jarraitzea proposatu du, eta nahiz eta hainbeste jendek ez parte hartu, hara joaten direnek, gutxienez, jarraituko dutela.

PPk positiboago ikusten du partaidetza, hobe daitekeen arren, ongi dagoela eta deialdiarekin jarraitzea merezi duela uste duelako.

Jarduerei dagokienez, Enclave elkarteak gogoratu du oraindik liburu marka egiteko dagoela, puntu lilarekin, azaroaren 25eko astean liburutegietan banatzeko. Berdintasuneko zinegotziak erantzun du aurrekontua aztertu beharko dutela.

PSEk gai bat proposatu du hitzaldirako: tratu txarren kasu baten aurrean gaudenean, zer egin dezakegun elementu praktikoei buruzko informazioa ematea, bere ustez, guztiok gizarte-zerbitzuetara edo Ertzaintzara jo dezakegula dakigun arren, dauden zerbitzuei buruzko hainbat galdera egiten dizkiogulako geure buruei, hala nola emakumeak salaketa bat jartzera gomendatu behar ditugun ala ez, nola entzun behar diegun, zer aholkatu diezaiekegun eta abar. Proposamenari ongi deritzote Kontseiluko gainerako kideek eta Berdintasuneko teknikariak proposatu du Norma Vazquez izatea hitzaldi horretako txostengilea.

Azkenik, erabaki dute taldeek pare bat aste izatea azaroaren 25ari buruzko proposamenak bidaltzeko, bai herritarrentzako deialdiari buruz bai gainerako jardueri buruz.

Bestelako gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman dute.

**Hurrengo bilera urriaren 23an izango da, asteazkena, 17:00etan**